BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN ETA LEHIAKORTASUN SAILA

4793

EBAZPENA, 2013ko irailaren 30ekoa, Turismoko zuzendariarena, 2013ko ekitaldian emandako laguntzen zerrenda jakitera ematen duena, Euskadiko turismo lehiakortasuna sustatzeko laguntzen programa arautu zuen Aginduak finkatutako esparruan.

Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2011ko uztailaren 13ko Aginduak arautu zuen Euskadiko turismo lehiakortasuna sustatzeko laguntza-programa (2011ko uztailaren 26ko EHAA), eta Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko sailburuaren 2012ko martxoaren 8ko Aginduak aldatu du (2012ko martxoaren 14ko EHAA).

Merkataritza eta Turismoko sailburuordearen 2013ko martxoaren 27ko Ebazpenak jendaurrean jarri du aipatu laguntzen programaren deialdia 2013ko ekitaldirako (2013ko apirilaren 12ko EHAA).

Laguntzen espedienteak erabakitzeko Turismoko zuzendariaren 2013ko uztailaren 30eko Ebazpena entitate interesatuei banan-banan jakinarazi eta gero, eta diru-laguntzak emateko aginduaren 14. artikuluan aurreikusitakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Ebazpen honen eranskinean zehazten den legez, 2013ko ekitaldiari dagokionez, 2011ko uztailaren 13ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntzen zerrenda argitara ematea. Agindu hori 2012ko martxoaren 8ko Aginduaz aldatu zen, zeinarekin Euskadiko turismo lehiakortasuna sustatzeko laguntzen programa arautu baitzen.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko irailaren 30a.

Turismoko zuzendaria,
MERCEDES GARMENDIA BERECIARTU.

ERANSKINA

Entitate onuradunak	Dirulaguntza
Kanpezu-Arabako Mendialdeko Koadrila	7.429,70
Zuiako Koadrila	8.992,60
Arabar Errioxako Ardoaren Ibilbidearen Elkartea	61.738,69
Aguraingo Eskualdea	19.748,46
Añanako Kuadrila	8.074,58
Vitoria-Gasteizko Udala	32.453,24
Araiatur, Haiarako Harana eta Goi Nerbioiko Elkartear	42.667,49
Goierri Turismoa S.L.	55.603,30
Zarauzko Turismo Bulegoa	22.715,41
Zarauzko Turismo Bulegoa	353,96
Iraurgi Lantzen S.A.	32.249,93
Geogarapen, Geoparkearen Kudeaketarako Elkartea	29.819,81
Urola Garaiko Garapenerako Agentzia S.A.	27.052,77
Bidasoa Bizirik Bidasoako Garapenerako Agentzia	56.857,74
Tolosaldea Garatzen S.A.	41.614,66
Donostia San Sebastian Convention Bureau	85.557,32
Behemendi Landa Garapenerako Elkartea	48.399,17
Oarsoaldea, S.A.	49.091,44
Debegesa	62.613,23
Debagoiena Mankomunitatea	45.575,58
Lea Artibaiko Garapen Agentzia S.A.	40.079,98
Jata-Ondo Landa Garapenerako Elkartea	42.272,83
Bilbao Ekintza, Epel	41.124,27
Getxoko Udala	3.524,16
Urremendi Landa Garapenerako Elkartea	42.038,53
Gorbeialde Landa Garapenerako Elkartea	44.529,57
Enkarterri Turismo--Enkartur	45.473,70